

NAHIKARI ETA BASAMORTUA

Bazen behin, Nahikari izeneko neska bat, Bergara deitutako herri batean bizi zena. Nahikarik ile leun- leuna zuen ilehoria zen eta begi berdexkak zituen, alia zen baina erabat xelebrea eta oso- oso ausarta.

Nahikari ikastola pribatura joaten zen, marka askotako arropa zuen eta diru asko- asko zuen, baina... Ez zituen lagunik, bere gurasoek ez zioten kasurik egiten, denbora guztian mugikorrarekin zegoen eta ez zuen kirolrik egiten, dena hitz batean: zorigaiztoko. Beti ikastolara autoan jotzen zen, eta beti tximeleta berdina bere sudurra laztantzen zuen eta Nahikarik ez zuen ulertzen zergatik egunero- egunero egiten zuen berdina, baina ikastolara joaten jarraitu zuen.

Egunero esaten zioten marka arraro bat zuela sudurrean, baina berari ez zitzaion axola eta ikasten jarraitu zuen. Hilabeteak eta hilabeteak pasatu ziren eta azkenean konturatu zen tximeleta hura zela marka arraro hura lagatzen ziona.

Halako batean tximeleta berriz ere sudurrean ez laztandu baizik eta ezarri egin zitzaion, doministiku egin zuen eta begiak zabaldu zituenean, Saharan zegoen!!!

Ezin zuen sinetsi, oso arraroa egiten zitzaion han egoteak, gamelu bat gerturatu zitzaion eta gizon bat zuen gainean eta berarekin joatea proposatu zion.

Nahikari asko beldurtu zen baina ausarta izan zen eta berarekin joatea erabaki zuen. Bi ordu beranduago erreka arraro eta ilun batera heldu ziren, erreka urak kolore arraroa zuen, berde antzekoa, eta zuhaitz asko zeuden inguruan, heldutakoan Nahikari beldurrez zegoen. Eta honela erreakzionatu zuen.

- NON GAUDE? - galdetu zion Nahikarik dardarka.
- Ez duzu ikusten, ikusten, erreka, erreka batean gaude. - Erantzuna zion.

Nahikari gauzak bikoitz ikusten eta bikoitz entzuten hasi zen, eta bat-batean lurrera erori eta zerbaitek begiak estaltzen zizkiola sentitu zuen, ezin zen oso ondo mugitu, eta ezin zuen oso ondo arnasa hartu ere, une batetik bestera konortea galdu zuen.

Begiak ireki zituenean, ez zekien ez nor zen ez nora zihoan, ez zekien ezer, zekien gauza bakarra bere herrian zegoela ezezagun batekin zen. Korronteak eraman zuen, eta oraindik ez zekien ez nor zen ez nora zihoan. Bat batean kaletik oinez zihoan gizon arraro batek Nahikarirekin zegoen ezezagun hura agurtu zuen eta Nahikariri ezaguna egin zitzaion bien aurpegia, berarekin zegoen ezezagun bere ama zen eta urruneko gizon hura bere aita, handik aurrera zuen diru dena ahaztu zuen eta zoriontsu izatea erabaki zuen, erabaki zoragarri hura hartu zuen. Handik aurrera lagunak egin zituen, ez zuen hainbeste denbora pasatzen mugikorrarekin, bere gurasoek arreta gehiago jarri zioten ,

dena hitz batean: zoriontsua, eta garrantzitsuena ez zitzaien tximeletarik agertzen ikastolara bidean.

Tximeletak denbora guztian zoriontsu izan behar zela esten ahalegindu zen. Hala bazan edo ez bazan zar dadila kalbazan eta Nahikari bezala gu ere zoriontsuak izango gara.